

Zure ondoan



SANTI LEONÉ

Kontakizunetan, are gehiago partekaturiko kontakizunetan, isiluneak kontatzen dena bezain inportanteak izaten dira. Maiz, isiluneek egiten dute posible kontakizuna onargarria ez ezik ederra ere izan dadin. Kontakizuna esaldi bakarra izaten ahal da: konparaziorako, "175 urte zure ondoan" lelopean ari da ospatzen bere urteurrena Espainiako Guardia Zibila, lau hitzetan herritarrei urte luzeetan emandako babesa irudikatu nahian. Isilpean, 19. mendean Andaluziako anarkismoa erreprimitzeko sortu zela, edo egitura militarra eman zitzaiola guardiek, kuarteletan bilduta, noizbait zafratu beharko zituzten herritarrekin enpatiarik izan ez zezaten. Ez da hain urrun joan beharrik. *Itziarren semeak* dokumentala eman zuten igandean ETB2n. Trantsiziioraino ere ez da joan beharrik, halere.

Trantsizioko narrazio konpartitua ere isiltasunaren gainean eraiki dute. Herenegun artio, Estatuko estoldak eskandalo ziren. Orain, berriz, Espainiako demokraziaren saildu berria hil den honetan, gustu txarrekoa litzateke estolda horiek aipatzea. ETA-ren akabera ekarri baitzuen sailduak.

Voxi buruz idatzi du Anne Applebaum Pulitzer saridunak *El País* egunkarian. Bertze gauza batzuen artean, partekaturiko narrazio bihurtzen ari den tesia berretsi du egileak: Kataluniako prozesuaren ondorio da Voxen arrakasta. Hala erran omen zioten guziek Madrilen.

Espainiako sailduak eta Espainiako demokrazia, bistan da, akasgabeak lirateke periferiako herri horienegatik ez balitz. Euskal Herririk gabe ez zatekeen Estatuko estoldarik izanen; Kataluniarik gabe ez zatekeen faxismorik izanen. Gu gabe, Espainia perfektua litzateke, baina gu gabe ez lukete perfekzio eskasiaren errua nori egotzi. Behar gaituzte, gorrotatzeko bada ere. Horregatik bertze horiek ere behar dituzte, gure ondoan 175 urte daramatzatenak. ●

...HAIN ONGI DA
DEMOKRAZIA, NON ETA
FAXISMOA ERE
BOZKATU DAITEKEEN...



ADUR



"ERABAKI NUEN DESOBEDIENTZIA EKINTZA ARTISTIKO GISA BIZITZEA"

ABEL AZCONA, ARTISTA

Performance batean ostiekin "pederastia" hitza jartzeagatik epailearen aurrean deklaratzera bitan deitu dute Azcona iruindarra, baina ez da agertu. Portugalen dago erbesteratuta. "Erabaki nuen desobedientzia ekintza artistiko gisa bizitzea. Prozesu guztia proiektu performatibo bat izango da, neure burua ahalduzko prozesu bat. Prozesu historiko-politiko eta sozialak aztertu ditut, zeintzuetan isiltasuna erresistentzia tresna gisa erabili izan duten. Ni atxilotzera datozenean, erresistentzia pasiboa egingo dut, isiltasunaren bitartez". **BERRIA (2019/05/13)**